

TOKIKOM

2012ko abendua | 121. zenbakia

ailkor!

ierriko aldizkaria

Zintzoak
zaretelako



RESIDENCIAL LANDABARRI

Urtebete barru etxebizitzez gozatu ahalko zara



RESIDENCIAL
LANDABARRI

Bilbo Handiko
habitat berria



2 logela **212.937** €tik + BEZa

Garajea eta
trastelekua,
barne

3 logela **238.557** €tik + BEZa

Garajea eta
trastelekua,
barne



400 familiak dagoeneko erabaki dute hemen bizi izatea.

Ingurune natural batean, Teknologia Parke eta aireportuaren artean.

2 eta 3 logelatako etxebizitzak, **terraza, garajea eta trastelekua** dituztenak.

Kanpoko gune zabalak dituzte beheko solairuak, haietaz nahi duzun moduan disfruta dezazun.

Landabarra Kirolak, igerilekuek arrakasta handia eduki dute aurtengo udan.

Gurekin harremanetan jarri
eta askoz gehiago kontatuko dizugu, harrituko zaitugu!



94 645 90 15

www.landabarra.es

sukia

Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Jon Goikouria, Juan Luis Goikoetxea, eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jon Ander Rola, Bego Vicario, Bestorrene, Xabier Díaz, Oihana Astobieta, Belen Gana, Idurre Duarte eta Itsasne Zubiri

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



**TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA**

diruz lagundutako aldizkaria



12 Tor magoa



16 Euskararen Eguna



34 Derioztarrak bost kontinenteetan

- 4 Eritxia
- 6 Laburrak eta albisteak
- 10 Kazetaritza tailerra
- 11 Iruditan... Biluzia
- 12 Gurean izan da... Tor magoa
- 14 Gaztea eta... Iker Sanz
- 16 Euskararen Eguna
- 18 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 20 Arrekikili Larrabetzuko euskara elkarteak
- 25 Gabonetako egitarauak
- 30 Senchu Sende, idazlea
- 32 Berbalagunen txokoa
- 34 Derioztarrak bost kontinenteetan
- 36 Teknologia... Lehengairik garrantzitsuena
- 37 Aikorrizketan... Belemeko astoa eta idia
- 38 Sukaldaritza
- 41 Denborapasa

Casim Bernal Txorierri IMQ AEGON

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella

Milena E. bajo - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larmailak: 670 985 885 - www.txorierri.com

GALAISA Elengabeko ordutegia

Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana, 1-3, SONDIKA

Ford Goiri'78 s.l. Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Orain dela gutxi egon nintzen jardunaldi batzuetara irakasle irlandar bat etorri zen bertako hizkuntza-
ren –gaelikoa– egoera azaltzera. Esanda-
koaren arabera, Irlanda osoko hiru konde-
rrietan –mendealdekoetan– soilik da hiz-
tunen kopurua % 50 baino handiagoa.

Gaelikoa Irlanda osoan derrigorrean ikasi behar den hizkuntza da, baina horrek ez du bermatzen hiztun osoak lortzea, gure “A” ereduarekin gertatzen den bezala. Ezta, duela urte batzuk konderri guztietan gutxienez ikastolen antzeko ikastetxe bat egotea lortu bazuten ere, eskola horietan harremanetarako gaelikoa erabiltzea ere.

Harrigarria da, nire ustez behintzat, independentzia orain dela ehun urte lortu bazuten ere, oraindik egoera horretan egotea. Izan ere, betiko topikoa da independentzia lortzeak hizkuntzaren bizirau-pena bermatzen duela uste izatea. Argi dago erabakitasunik gabe eta legeetan oinarrituz soilik ez dela hori lortzen. Hala ere, aurrekoarekin ez dut esan nahi geure estatuaren aldekoa ez naizenik.

Topikoak



JON ANDER ROLA
(Irakaslea)

Hizkuntza baten ezagupenaren eta erabileraren arteko aldea beste topiko bat da. Hala, beti pentsatu da hizkuntza baten ezagutza % 50ekoa bada, erabilpena parekoa izan beharko litzatekeela. Txilardegik esan zuen bezala, gizarte elebidun batean oso zaila da hizkuntza gutxi-tuaren erabilera eta ezagutza parekoak

izatea, are gehiago gizarte horretako beste biztanleak elebakarrak badira. Zenbat aldiz topatu dugu lagun talde bat zeinetan erdaraz egiten baitute, haietako batek euskaraz ez dakielako?

Historian zehar isolaturik bizi izan garelako euskarak bizirik dirauela pentsatzea beste topiko bat da. Horren haritik esan behar dut behin, beste hitzaldi batean, entzun nuela erromatarren garaian inperioa lotzen zuten galtzada inportanteenatariko batzuk gure lurraldetik pasatzen zirela, eta historian zehar horrela izan dela. Europa osoan bertoko hizkuntza mantendu dugun bakarrak izan bagara, isolatuta egon garelako ez da izan, hala nahi izan dugulako baizik.

Behin, lezamar bati entzun nion bere herrira erdararen erabilera trenak ekarri zuela. Bere belaunaldira arte euskaraz egiten zutela, baina gaztea zela trenara jarri eta erdaraz barra-barra egiten hasi zirela. Eta Larrabetzun horregatik egiten dela gehiago euskaraz gaur egun. Hori egia bada, sinadurak batu beharko ditugu trenara Larrabetzura inoiz hel ez dadin.

Euskalduna eta minusbaliatua



BEGO VICARIO
(Irakaslea)

Abenduaren 3an, arrazoi bi izan genituen aldarrikapen eta ospakizunetarako: batetik, Euskararen Eguna; eta bestetik, Ezintasuna duten Pertsonen Eguna. Euskaldun berria eta ezintasuna duten gaztetxo biren ama naizen heinean, askotan pentsatu dut euskaldun minusbaliatuek dituzten oztopoak oso gutxitan aipatu eta aitortzen direla. Gutxiengo biren esparru komunean bizi direla, arazook askoz ere modu nabariagoan sufritzen dituzte.

Haien ondoan gaudenok soilik konturatzaren gara zelako apustu handia egin dugun, euskara lehen hizkuntzatzat aukeratu

dugunean. Gure herrietan, zorionez, inguru euskalduna dutelako eta beste guraso batzuek horrela aholkatu digutelako. Hala ere, ez da erraza haientzako mediku, espezialista edo pedagogo euskalduna topatzea. Eta inkomunikazio hau ez zaio inori inporta, gurasoek itzultzaile lana egiten duten bitartean. Baina horrela, euskara erabiltzea eskubidea urratzeaz gain, autonomoak izateko aukerak ere gutxiagotzen dizkiegu. Inork ez du pentsatzen benetako urritasuna duena ez dela ezindua, baizik eta espezialista bera eta, oro har, inguru osoa.

Egun berezi bi horiek data berean ospatzeari oso egokia deritzot. Azken batean, euskaldunon eskubide linguistikoen urraketaren eta zapalkuntzaren ikurrik handiena gure ezindua euskaldunak direlako.

Consulting Sondika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 475 746

Mixolne, 6 beheko
48190 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

NARTEGIA • URDAITEGIA

VICTOR

ARTESAU-ELABORAZIOA

Okela ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomoak...
Plater aurrekoizatu

Golri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

URAS

Estetika eta masajea

Aita Patxi Ugaldé, 14 beheko
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, AIKOR!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Bosgarren edukiontziaaren egia

Txorierriko Mankomunitateak hondakinen kudeaketaren azterketa bat egiteko agindu du. Azterketa horretan atez ateko hondakinen bilketaz esaten da hura berria eta polemikoa dela. Eta ez dio gezurrik, batzuen interes politiko eta ekonomikoek horixe bihurtu baitute ingurumenarentzat komenigarriena den hondakinen kudeaketa.

PIGRUB-k (Bizkaiko Hiri-hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala) 2005-2016 aldirako ezarritako helburuen ezarpena kontuan izanik, eta ondoren Espainiar Estatuan onetsitako uztailaren 28ko Hondakin eta lurzoru kutsatuen 22/2011 legea ere kontuan hartuta, jakin behar da haiek ezarritako gutxienekoak Txorierrin ez direla betetzen. Legeak ezartzen du 2020. urtean gutxienez ekoiztako zabor guztiaren % 50 berrerabilgarria eta birziklatua izan beharko dela. Une honetan, Mankomunitatean ez dugu % 18,8 baino birziklatzen eta berrerabiltzen, eta bosgarren edukiontziaarekin ez gara legeak berak ezarritako % 50era helduko, horrela erakusten baitute hondakinen kudeaketa sistema hau erabili duten beste herri batzuetan izandako emaitzek (Deustun, adibidez, hasiera batean familien % 10ek



baino ez zuen izena eman bosgarren edukiontzia erabiltzeko, eta ondoren, kopuru honek behera egin zuen). Urrun geratzen dira kopuru hauek atez ateko sistemaren bidez birziklatu daitezkeen % 60 eta % 80 portzentajeetatik.

Gure ustez, EAJ-ren jarrerak ez du benetako soluziorik ekartzen. Birziklatze eskasaren arazoari irtenbide eraginkorrak eman beharrean, irtenbide erosoaren eta, ingurumenarentzat, garestienaren

alde egiten baitute. Beste interes batzuen alde jokatzeko ari dira?

Ez da iraultzarik egin behar. Pausu txikiak emanda ere hurbil gintezke bai naturak, bai guk nahi eta behar ditugun birziklatze kopuruetara.

Konposta dezagun Txorierrin!

*Txorierriko Mankomunitateko
EH Bilduko ordezkariak*


**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

IRATXO
gozotegia
berta personalizatuak
trufak
kakiak
pastelak
pastak
Mikel Zarate, 2 - 5. floor - SondiKA, 48150 - 94 453 16 77


Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3 Ilea - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

Antzinako eta oraingo argazkiak batzen dituen egutegia kaleratu dute Loiun



Jesús Sustatxa eta Luis Gómez Loiu Laztana kultura-elkarteko kideak dira; herriko oroimen historikoa berreskuratzea eta zabaltzea du helburu elkarre horrek. Horrela, bada, Gabonetan egutegiak banatuko dituzte doan loiuztarren artean, eta egutegi horietan herriko argazkiak egongo dira ikusgai, bai oraingoak, bai antzinakoak. "Artxibo oparo bat daukagu, guztira 1.000 argazki eta azken berrogei urtean grabatutako hainbat film biltzen dituen, eta herrikideek eza-

gutzea nahi dugu", esan digu Jesússek. "Argazki bereziak dira, egutegiari balio erantsia ematen diotenak", gaineratu du Luisek.

Bikoteak 1.200 egutegi argitaratu ditu. "Loiun 900 etxe daude eta, behar izanez gero, gehiago plazaratuko dugu, baina uste dugu ateratako kopuruarekin nahikoa izango dela". Loiu Laztana kultur elkartekoek 200 egutegi bidali dituzte dagoeneko postaz. Gainerakoak abenduaren 24an banatuko dituzte, arrastiz,



Zabaloetxe auzoan egingo den Olentze-oren jaian. Bestalde, Larrondoko jai-batzordeak ere egutegi bana postaz bidaliko die Elotxelerrri auzoko lagunei. "Egutegia interesgarria izango da Loiu bizi direnentzat eta izatez Loiuakoak diren baina herritik kanpo bizi direnentzat". Jesússek eta Luisek babesleen laguntza izan dute, egutegien kostua ordaintzeko.

Egutegia alde batera utzita, lan itzela egiten du Loiuo bikoteak herriko oroimena ez galtzeko. Esaterako, DVDak eta liburuak landu dituzte eta haietan guztietan argazkiak eta herriko lagunen adierazpenak jaso dituzte. Jesús eta Luis herrian gertatzen denaren lekukoak dira (jaiak, ospakizunak, gertakariak...) eta, horri esker, askotariko materiala dago guztien eskura.

TXORIERRI
Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
Kontagailu gerta
AHOLKULARITZA, TANAZIOA
ALOKATZEAK, ENKUALDATZEAK
SALERONKETAK
SEGUROR BILBOAREN AGENTZIA

pro audio
SOINUAN ADITUAK
Txorierrri et. 15
48150 Sondika Bizkaia
944 533 375
www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com

- hi-fi
- nobigazioa
- telefonis
- segurtasuna
- inbiketa
- pertsonalizatzea

yedra
floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Txorierrin
F.M. 102.6 Mhz
www.bizkaiairratia.com

Lainomendi Taldea

Bizkaitik Bizkaira

Euskal Herrian zehar

Abenduaren 29an 18:00etan
Dantza erakustaldia
Derioko frontoian



electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea
*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Aizkorri Kalea, 1 • Telef. / Fax: 94 454 31 46 - 48160 DERIO (Bizkaia)



X Kotexa Plaza, 2 - 4. D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios 10 Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behe
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 19 X



**POL'TENA
TABERNA**
Andra Mari
Larrabetzu, Bizkaia
tel.: 94 455 84 07



www.iscitto.com
iscitto@euskalnet.net

USTIAPENA,
SALMENTAK, SAT

MAKINA AUTOMATIKOAK:
KAFEA, LATAK,
SNACK, TABAKOA

Idorsolo ind., 5. nabex 10. pab. 48160 DERIO
Tel. 94 454 33 34
656 78 66 84 / 85 - Fax: 94 454 29 04

INGELES
(Cambridgeko azterketak
E.O.I. eta abar)

FRANTSESA
TXINERA
EUSKARA
GAZTELANIA

ESKOLA LAQUINTZA
(matematika, kimika,
ingurumenak...)

ENPRESENTZAKO IKASTAROA
MAILA GUZTIAK
ORDUTEGI MALGUAK

**IKASGELA
AKADEMIA**

ETORKI
ETA HIZKUNTZAK
IKASTERA ANIMATU

Hizkuntza ikasteko **murgiltze-programa** familia batekin
14-18 urteko gazteei zuzendua
Ekainaren 30etik uztailaren 28ra, Boisen (EEBB)

Alta Patxi Ugalde, 12
48195 Larrabetzu
Tel: 615 70 73 61
ikas03oa@gmail.com





“Txopo”ren gerizpean

Pedro Mari Goikoetxea kazetari lezamarak José Anjel Iribar Athleticeko jokalaria mitikoaren biografia idatzi du. Liburua euskaraz idatzi du Goikoetxeak, eta titulua *Iribar: irudia eta erudia* (Alberdania) da. Hala ere, gaztelaniazko bertsioa ere badago, *Iribar: la alargada sombra del Txopo* (Alberdania) izenburupean. “Argi genuen liburua euskaraz idatzi behar zela, baita gaztelaraz ere, Athleticean zaletuak oso anitzak direlako eta Iribar Euskal Herrikan kanpo ere oso ezaguna baita”, aipatu du Pedro Mari.

Iribarrek lehen pertsona eman digu bere bizitzaren berri liburuan. Besteak beste, pentsamenduak, sentimenduak, akatsak eta jarduerak jaso dira argitalpenean. Gainera, bertan hainbat entrenatzailek, taldekidek eta areriok ere aipatu dituzte “Txopo” handiari buruzko iritziak eta anekdotak. Liburua borobiltzeko, argazki pilo bat ikusteko aukera dago. Andoni Zubizarretak hitzaurrea sinatu du.

Sondikako merkataritza sustatzeko kanpaina

Sondikako Udalak kanpaina bat jarri du abian, herriko saltokiak bultzatzeko eta dinamizatzeko. Kanpainak “Sondikan Berton” du izena, eta helburu bikoitza du: alde batetik, kontsumoak atzera egin duen sasoi honetan ezagutzera ematea nolako abantailak dituzten herriko saltokiek eta, bestetik, Sondikako merkataritzari eutsiko dion eta lanpostu berriak sortuko dituen esparru ekonomiko bat sortzea. Egitasmoa fase bitan garatuko da.

Lehenengo fasean, herritarrek sentiberatu egin nahi dira herriko merkataritza

tzaren alde. Fase horri hasiera eman diote dagoeneko, eta, besteak beste, material ekologikoz eginiko oihalezko poltsa berrerabilgarriak, kartelak, pegatinak eta informazio-liburuak banatu dira dendetan eta herritarren artean, Gabonetan erosketak sustatzeko. Kanpainaren arduradunek sondikoztarrak ohartarazi dituzte herriko merkataritzaren aukera zabalaz, eskaintzaren kalitateaz eta etxe ondoan erostearen abantailaz.

Bigarren fasea sendotze fasea izango da eta 2013ko lehenengo sei hilabeteetan egingo da. Merkatariek parte-hartze aktiboa izango dute bertan, eta hainbat jarduera bultzatuko dituzte herritarren artean. Bestalde, aipatu beharra dago Sondikako Udalak merkatariek biltzen dituen egitura egonkor bat eratzeko asmoa duela, merkataritza herriko bizitzaren eragile bihurtu dadin. “Garai latzak dira denda txikientzat, baina beti izango dute Udalaren laguntza. Merkataritza Sondikako balio aktiboa da eta horregatik eskatu nahi diet herritarrei haren alde jokatzeko jarraitzeko. Egitasmo honen bidez, geure denden kalitatea, hurbiltasuna eta konfiantza azpimarratu nahi ditugu. Udalak ildo horretatik jarraituko du lanean, eta herriko dendarien ondoan egongo da”, esan du Gorka Carro Sondikako alkateak.



Magalarte txakolina

IRETXABALETAKO TXAKOLINA

75 cl. 10,75 % vol.

Iraki 94 455 65 08 | Jabi 94 452 14 31

Bizkaiko Txakolina Denominación de Origen

Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Buzkideak: 144

Pentsu naturalak

ANKAPAZU

LARRABETZU
☎ 94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA (BIZKAIA)



Talleri upeltegiaren txakolinek saria jaso dute Vienan

Vienako International Wine Challenge lehiaketan, 37 herritako 1.760 upeltegik hartu dute parte aurten, eta 11.514 ardo aurkeztu dira guztira. Talleri Txorierriko upeltegi kooperatibak sari bi jaso ditu bertan: zilarrezko medaila, "Bitxia zuria" txakolinagatik; eta zilarrezko medaila, "Bitxia berezia" txakolinagatik. "Pozarren gaude", esan digu Pedro Mari Olabarrieta Talleriko presidentek. "Upeltegiak orain urtebete inauguratu genuen eta sari hau jasotzeak gauzak ondo egiten gabiltzala

adierazten du. Era berean, beste eragin-garri bat da lanean jarraitzeko eta hobetzeko". Gainera, Olabarrietak azaldu digunez, esan beharra dago Austrian Estatuko hiru ardok bakarrik lortu dutela saria. Sari bat Galiziara joan da; eta beste biak Talleri upeltegiak jaso ditu. Txorierriko upeltegiak sei txakolin mota ekoizten dira: lau txakolin zuri, txakolin gorri bat eta txakolin beltz bat. 2011. urtean, 120.000 litro txakolin ekoiztu zituzten; 100.000. litro, aurten.

Padel solidarioa

Abenduaren 21etik 23ra bitartean, Padel Solidarioaren Lehiaketa egingo da lehenengo aldiz Derion eta Bilbon. Lehiaketa horretan lortzen den dirua Juegaterapia elkarte-ari emango diote. Elkarre horrek bideokontsolak eta bideojokoak jasotzen ditu eta haurrentzako onkologia arloa duten ospitaleetan banatzen dituzte. Lehiaketan kategorია bi osatuko dira: adingabeak eta nagusiak. Azken hauek Padel Derio klubean jokatu ditzute partidak; eta adingabeek, Bilboko Udalak San Ignazio dituen kirol instalazioetan. Lehiaketak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen babesa jaso du. Lezamako Udaletik adierazi dutenez, haiek ere egingo dute bat ekimenarekin, eta bideokontsolak eta bideojokoak jasoko dituzte liburutegian eta ludotekan.

Bertsolarien Txapelketa

Abenduaren 14an, Bizkaiko Bertsolarien Txapelketaren finala izen zen, Miribilla Bilboko kirol jauregian. Aretoa 4.000 lagunetik gora batu ziren. Arkaitz Estiballesek (899 puntu) bigarren aldiz jantzi du txapela, buruz buruko Igor Elortzarekin (896 puntu) jokatu ostean. Haiekin batera bertsolari hauek ibili ziren finalean: Fredi Paia (506.6 puntu), Jone Uria (500 puntu), Onintza Enbeitia (494.5 puntu), Miren Amuriza (490.5 puntu), Iratxe Ibarra (485.5 puntu) eta Etxahun Lekue larrabetzuarra (474 puntu).

Jatetxea SAN ISIDRO
EUSKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOGOZINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 98 Fax 94 454 14 18 Mungia de etorbidia: 25 48160 DERIO

t o k a k **EGUNEKO MENUA**
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**
Bestorrenia 5, Bahea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

BASALBEITIKO TXAKOLINA
Bizkaiko Txakolina
Dimitrius 10 de 100 g
Geldotza: 94 454 14 35 (LEZAMA)
94 455 01 46

urdaitegia delicatessen
amalur
Uribe, 14 - 48160 DERIO
94 612 19 55
www.amalurderio.com
info@amalurderio.com

ADARVE KAFETEGIA
Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

MODA INFANTIL
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35 Fax: 94 454 38 26 48160 DERIO Bizkaia

Talentuz beteriko entseguak

Txorierriko Mankomunitateak antolatutako Izarren Distira! Talentu Lehiaketaren haritik, kazetaritza tailerra egin da. Tailerrean parte hartu dutenek lan bana egin behar izan dute eta guztien artean onena aukeratu da. Irabazlea Idurre Duarte 13 urteko neska izan da. Idurrek tablet bat jaso du saritzat, eta bere artikulua AIKOR! aldizkarian argitaratzea. Hemen duzue bere lana.

Abenduaren 1ean bigarren entseguak egin ziren, castingerako ikuskizunak prestatzeko. Goizeko 10:00etatik 14:00etara izan ziren, Ylenia Baglietto aktorea Sondikan eta Ugaitz Alegria aktorea Derioko Kultur Birikan monitore egon zirelarik. Hamabi eta 18 urte bitarteko gazteak Sondikako gaztetxean bildu ziren saioak prestatzeko, eta Yleniaren laguntzaz ikuskizunak hobetu eta polito utzi zituzten. Giro ederra ikusten zen parte-hartzaile guztien artean. Ederki moldatu ziren entseguetan eta ados egon ziren Yleniak egindako aldaketa

Izarren Distira! Lehiaketarako Sondikan egindako entseguak bikainak izan ziren



gutxiekin. Hainbat neska eta mutil azaldu ziren entseguetara bai dantzariak, bai abeslariak eta aktoreak, haiek duten zirra-
ra eta gogo handia askatzeko eta mundu guztiari gazte hauek barruan duten talentua erakusteko.

Parte-hartzaileek esan bezala, "Oso pozik gaude hemen egoteaz eta ikuskizun-
nean gure onena emango dugu. Gainera, irrikan gaude castingaren eguna noiz helduko". Aurten parte-hartzaile gehiago egongo dira, agian sariagatik, baina ez dezagun ahaztu lehiaketa honen helburua gazteak euskaraz gehiago mintzatzea dela.

Castingak abenduaren 13an Zamudion eta 14an Derion izan ziren. Izarren Distira Talentu Lehiaketaren Gala abenduaren 22an, 19:00etan, egingo da Sondikako Kultur Etxean. Gure lagunek itzel egingo dute, seguru. Zorte on!

"Zorte itzela da gustuko duzun lan batean lan egitea"

UGAITZ ALEGRIA ETA YLENIA BAGLIETTO | aktoreak



Ugaitz Alegria eta Ylenia Bagliettori elkarriketa egiteko aukera izan dugu. Oso jator azaldu dira galdera batzuk erantzuteko, "Izarren Distira" lehiaketari eta harekin lortu nahi ditugun helburuei buruz.

Zertan datza zuen lana? Zer egin behar izan duzue hona heltzeko?

Gu aktoreak gara. Antzezlanetan eta telebistan egiten dugu lan. Eta gero, lan hauetarako deitu egiten gaituzte, irakasle aritzeko. Oso zorte handia dugu lana izateagatik eta batez ere gustuko dugun lan batean gustura egoteagatik.

Zergatik uste duzue aurten parte-hartzaile gehiago egon direla?

Agian, aurten jende gehiagok jakin du lehiaketa dagoela, edo pasa den urteko ikuskizuna ikusi eta gero gogo handiagoa izan dute parte hartzeko.

Zertan lagundu ahal dio Izarren Distirak euskarari?

Ohituta gaude erdararaz hitz egiten eta euskara gutxiagotzen. Horrela-
ko lehiaketa batean gazteek bere talentua azaltzeko aukera bikaina dute, eta gainera euskara bultzatzen.

Zuentzat gogorra da epaile izatea?

Aukeratzeko momentuan bai, oso gogorra da, denok oso ondo egiten dutelako eta pena bat da parte-hartzaileak kanporatzea.

Bukatzeko, zer baloratzen duzue talde batean?

Gauza asko. Ia guztia. Oso barietate handia dagoenez, lar zaila da. Nagusiki kalitatea, koordinazioa, talentua eta suposatutako lanaren baloratzen dugu.



Biluziak

Negua biluzik azaldu zaigu eta halaxe emango ditugu hurrengo hilabeteak ere: biluzik. Biluzik, hotz hau jasateko behar beste beroki ez dagoelako. Biluzik, langa-beziagatik, txorieritar asko eta asko larrugorrian gaudelako. Biluzik, urte zaharri agur esan eta urte berriari ongietorria emateko beste modurik ez omen dagoelako.

Urte berri on... denoi?

Testua eta argazkia:

Jon Goikouria Larrabeiti

www.flickr.com/photos/jongoikoh



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko
sabaiak eta
apalategiak
Sabai
erregistragarriak
Isolamendu
termiko eta
akustikoa

Aiertza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel/Fax: 94 454 15 41
anaarti@euskalnet.net

"Haurren munduan nahiko ondo moldatzen naz"

t: Gaizka Eguskiza

Txorierrira askotan etorri zara. Zelan lortzen dozu horrenbesteko arrakastea?

Ez dakit. Hori besteei galdetu behar-ko zeunskie. Batez be umeen aurrean egiten dodaz saioak. Umeen munduan nahiko ondo moldatzen naz.

Umeen aurrean ibiltzen zara beti? Ez dozuz helduak gurago?

Bardin jat. Edozeinen aurrean egin ahal dot magia: umeak, nagusiak, enpresak... Halanda be, normalean umeak dira nire ohiko publikoa, batez be orain, Gabonetan-eta. Umeak eta helduak ez-bardinak dira: umeak ume dira eta beste ikuspuntu batetik ikusten dabe mundua. Trukuak normaltzat hartzen dabez, magoa zaranez, halakorik egin behar dozula pentsaten dabelako. Gauzea da eurek ondo pasetea, zuk magia egiten dozun bitartean. Helduei jagokenez, hareek logikaz pentsaten dabe, eta logika hori apurtzen dozunean, lortzen dozu euren interesa.

Ingeniaritza ikasi zenduan. Ogibidea galdetzen deutsuenean, zer di-nozu: magoa ala ingeniaria?

Lehen esaten neban magoa nintzala, eta aisialdian ingeniari egiten nebala behar. Baina hori udan aldatu egin zan, ingeniari beharra itxi nebalako. Orain mago baino ez nabil, eta hortik bizi naz. Badakit oso garai latzetan gagozala, baina horrek indarra emoten deust behar gehiago egiteko eta irudi-mena gogorrago lantzeko.

TOR MAGOA

Gaur egun, nork itxiko leuke bere beharra ingeniari moduan, magoa izateko? Aitor Bilbaok, Tor magoak egin dau, eta, momentuz, damurik ez. Tor askotan etorten da Txorierrira eta abenduan be Sondikan eta Larrabetzun euki dogu.



Ingeniari lan egiten zenduan eta orain magoa zara. Zer esan eutsun familiak beharra itxi zenduan?

Hurbilekoek, ondoen ezagutzen nabenek, normaltasun osoz ikusi dabe aldaketea. Hareek ziur egozan nonoiz magia-rantz emongo nebala pausua. Izan be, ingeniari behar egiten nebanean, magia-saioak prestatzeko, zoro moduan ibiltzen nintzan oporretan eta asteburuetan: leku batetik bestera, denpora barik...

Magoak erakargarriagoak ziran lehen, ezta? Xarrea galdu dau magiak?

Ez dot uste. Larogeta hamagarraren hamarkadan boom itzela egon zan magiaren inguruan. Garai hatan telebis-tak David Copperfield magoaren trukuak erakusten ebazan, eta, horrerik esker, modan jarri zan magia. Ostean, moteldu egin zan, baina gaur egun barriro biztu da magia: mago asko dagoz, telebista-saioek magia atalak dabez... Telebista-gizartearen espilua da, eta bertan magia ikusten bada, horrek esan gura dau gizarteak onartzen edo eskatzen daua.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zainitu Bonivox
Logopedia
Podologia
Kirmasajen

clinica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txorierrira etorbidea, 9 - Loria | Arriaga eraikina | 48160 DERIO
94 404 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txorierrira etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48160 Derio

Txorierrira etorbidea
94 404 44 98
a.amondarain@guv.es

TXAKURREN

ILE-APALDEGLA

Hungaralde eta Gernikako
erabotzen txakurren
48160 Derio
T: 94 404 21 80



"Ez dago magia unibersidadetik. Beraz, apurka-apurka eta nire kabuz ikasi behar izan dot"

Gaztea zara. Zenbat denpora darozazu mago?

Nik 30 urte daukadaz, eta betidanik gustau jat magia. Aititek jokoak egiten ebazan kartakaz, eta horrek interesa sorrarazo eustan. Geroago, "Magia borras" jolasa oparitu eusten. Hamabost urte nebazala hasi nintzan liburuak erosten, Bizkaiko magoen alkartera joaten...

Eta zelan ikasi zenduan?

Berton ez dago unibersidadetik, ezta Harry Potterren liburuetako Hogwarts eskolarik be. Apurka-apurka eta neure kabuz ikasi dot. Gatxa da hainbeste informazio dagoalako eta nora joan ez dakizulako.

Izena euskeraz dozu jarrita: Tor magoa zara; ez, "el mago Tor", ezta?

Bai, ez da nik aukeratutako gauza. Nire saioen % 95 euskeraz egiten dodaz, eta jentek halan esaten deust. Dana dala, eroso eta gustura sentiduten naz euskeraz; are gehiago, gaztelaniaz egiterakoan batzuetan euskerazko txipa aldatzea kostau egiten jat. Harro sentiduten naz behararen bidez euskerea ikastolaren eremutik kanpo ateratzen dodalako.

Zer da eszenatokiaren gainean gertatu jatzun gauzarik arraroena?

Umeek behin eta berriro harritzen zaitue. Beste era baten pentsaten dabe, eta horrek egoera bitxiak sortzen ditu. Behin baten, txikiegia zan neskatoa atera neban eszenatokira eta negarrez hasi zan. Beste behin, beste mutiko bat atera neban. Nik kolore bat pentsatzeko eskatu neutsan eta gero paperezko bola jaurti neutsan. Han berak pentsautako kolorea egoan idatzita. Baina ez zan bape harrituta agertu, uste ebalako berak kolorea aitatu eta gero idatzi nebala.



HARATEGIA

ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO



Leizola plaza, 4 - Leizaola (Zamudio)
94 452 73 68



ESTILISTA
EVA ARDINES

AmAr

Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara

Uribetxe Plaza, 1 - Bidea: 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 18; (Aurreko txanda)

BAR TXIKI



ESPEZIALITATEA.
TORTILLAK

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 04 68



Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea



Garmendia
ardoak

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubieta

Ostaiu-zentroa & Hortz-esteka
HORTZ-PLANTAK - ORTODONTZIALESTETIKA
BIZKAIKOTZAK

Dr. Amara kalea, 11 - 1. er. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Uribetxe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70



ERREKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Ikastuna, 1 Formulean

Lana karrera bukatu eta berehala aurkitzea ez da ohikoa gaur egun, tamalez. Iker Sanz zamudioztarrak lortu egin du, baina ez dugu horregatik berarekin hitz egin. Iker ingeniaria da eta azken urteotan Formula Student egitasmoan hartu du parte. Gazte txorierritarrak Formulako autoa diseinatu eta eraiki du bere ikaskideekin batera.

t: Gaizka Eguzkitza

1 Formula modan dago. Asteburu guztietan inoiz baino ikusle gehiago batzen dira telebista aurrean, lasterketak nork irabaziko dituen jakiteko. Athletic eta politika betidanik izan ditugu hizpide tabernetan, eta azken bolada honetan, baita Ferrari eta McLaren ere. Iker Sanz zamudioztarra ingeniaria da eta unibertsitatean zegoela sortu zitzaion Formula Student programan parte hartzeko aukera, eta ez zuen hura alferrik galdu.

Azken urte bi hauetan, Iker Formula-ko ibilgailua garatzen ibili da. "Egitasmoan sartu nintzen, karrera-amaierako proiektua bertan egiteko, baina programak izugarri erakarri ninduen eta azkenean gelditu egin nintzen", dio 24 urteko gazteak. "Formula Student proiektua polita da ikasleok auto osoa garatzen dugulako: diseinua lantzen denetik autoa zirkuituan lehian sartzen den arte. Gainera,

"Formula Student proiektua polita da ikasleok auto osoa garatzen dugulako"

industria arloarekin jartzen zaitu harremanetan".

Programak beste balio erantsi batzuk ere baditu, esate baterako, bidaia. Iker Ingalaterran eta Katalunian ibilia da, proiektuari esker. "Silverstone eta Montmeló zirkuituak barrutik ezagutzeko aukera duzu; hau da, harmailak ez ezik boxak ere bai. Gainera, beste unibertsitate batzuetako lagunak ezagutzen dituzu, euren autoak ikusten dituzu... Izugarri ikasten duzu. Ez dira oporrak, denbora



osoa lanean ematen duzulako, baina esperientzia bitzetza merezi du".

Euskal Herriko Unibertsitateko ingeniariak taldeka egiten dute lan Formula Student egitasmoan. Gazte zamudioztarra txasisa kudeatzen duen taldeko kidea da. "Txasisaz gainera, jesarlekua, kolpeleungailua... kudeatzen ditugu. Guztira, sei-zortzi lagun gabilta eta beste sail batzuekin egiten dugu lan. Beharra bai tailerrean bai ordenagailuaren aurrean egiten dugu. Taldeen arteko komunikazioa



Formula student

Formula Student Estatu Batuetan sortu zen eta Europara 1998an ekarri zuten. Bertan, munduko hainbat unibertsitatek hartzen dute parte urtero. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa programan zebilen Estatuko talde bakarra izan zen, harik eta 2008an EHU lehian sartu zen arte. "Berez, ingeniari-txapelketa da, eta autoa fidagarria dela erakutsi behar duzu; hori neurtzeko, hainbat alderdi hartzen dira kontuan: diseinua, galgaka, segurtasuna, errentagarritasuna, kontsumoa, azelerazioa... Eta lasterketa egiten da, noski, proba nagusia", dio Ikerrek.



oso arina da eta sarritan biltzen gara, lana guztion artean gainbegiratzeko”.

Auto elektrikoa

Iker 2011n sartu zen Formula Student proiektuan. Urte horretan, gasolinazko ibilgailua dezente hobetu zuten eta 2012an auto elektriko bat garatzen ere hasi ziren. Auto horren aldeko apustua behin betikoa da. “Gasolinazkoarekin lanean jarraituko badugu ere, 2013an elektrikoa baino ez dugu landuko. Gasolinazko ibilgailua hobetzeko, marjina teknologiko gutxi dugu; elektrikoari dago-kionez, ordea, marjina oso handia da, teknologia berri-berria delako”.

Ingeniari ez ezik gidari ere ibili da Iker Formula Student egitasmoan. “Gure lasterketetan ikasleak dira gidariak; gutako baten bat, alegia. Nik ibilgailu elektrikoa gidatzeko aukera izan nuen iaz, Montmelo zirkuituan. Interesgarria izan zen, baina autoa ez zen oso azkarra”. Gidaritza ez da biziko, baina gustatuko litzaioke benetako 1 Formularen lan egitea, hori zail-zaila izan arren. “Estatuan zeuden master biak bertan behera utzi dituzte. Beraz, gaur egun ez dago arlo horretan ikasteko aukerarik”. Bitartean, Ikerrek ikastun jarraituko du 1 Formulean. Agian egunen batean ikasketak lan bihurtuko dira.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago



BFA
DFB



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

BUENROLLITINA
Riki López, bakarrizlaria
(Umorea, musika...)
Urtarrilak 26, 20:00etan
Prezioa: 10 €



EL ALUCINANTE MUNDO DE NORMAN
92' - AG (3D)
Urtarrilak 4, 18:00
Urtarrilak 6, 18:00

¡ROMPE RALPH!
101' - AG (3D)
Urtarrilak 12, 18:00
Urtarrilak 13, 17:00

AMANECEER 2 (SAGA CREPUSCULO)
115' - EG-12 (2D)
Urtarrilak 12, 20:30
Urtarrilak 13, 19:30

FREDDY IGELDEGI
81' - AG EUSKARAZ (3D)
Urtarrilak 19, 18:00
Urtarrilak 20, 17:00

EL CUERPO
107' - EG-12 (2D)
Urtarrilak 19, 20:30
Urtarrilak 20, 19:30

BYPASS
95' - AG EUSKARAZ (2D)
Urtarrilak 27, 17:00-19:30

ZINEA



2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldaketak jasari ditzake

Euskara-uholdea

a: Amaia Bustinza, Itsasne Zubiri



Tor magoa

Sondikako kaleak, txokoak, aretoak, tabernak... euskarak hartu ditu aurtien. Eta hori inoiz baino indar handiagoarekin egin du; izan ere, Euskararen Nazioarteko Eguna bertan ospatu dugu orain dela gutxi. Ospakizunei umorez eman genien hasiera, bertso-hoparen doinua ipini genien, eta eztabaidarako guneak ere ireki genituen. Goi mailako bertsolarien ateraldiekin gozatu genuen, lehen eta oraingo abestiekin ausartu ginen, eta giza-katea osatu genuen, bertan ere euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko. Umeek ere haien lekua topatu zuten hainbeste ekitaldi artean: antzerkia, euskaraokea eta magia. Eta gutariko batzuk Donostiara abiatu ziren, Kontseiluak deitutako manifestazioan parte hartzera. Baina euskarak ez zituen soilik Sondikako kaleak hartu, Euskararen Egunaren haritik Txorierriko gainontzeko herrietan ere, hainbat ekintza antolatu zirelako. Hala ere, ezin dugu ahaztu euskararen normalizazioa ez dela egun bakan batzuetako aldarrikapena. Hori ondo dakite gure elkarteek, euskaltegiek eta erakundeek, zeinek urteko egun guztietan ahalegin handia egiten baitute, Txorierriin euskara ozen entzun dadin.



Euskaraokea



Taberna ibiltaria

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragotiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragotiti ind. P-7
48170 Zamudio (Bizkaia)

Restaurante
JAN JAETXEA

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Patxin eta Potxin pailazoak



Giza katea



Berbagunea



KAFETEGIA
IMAZI
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Carnicería
Charcutería
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK
lasai

Luis M^a Asensio
Osteopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 89
osteopatialasai@gmail.com

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unibee ileapaindegia
Estetika
Ordutegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**

Garbi-ikusiak, orokortzea
Auzokoan konposatzen
Mantentzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinia enbierako garbitzen
Ikastetxeak
Zabur bilketa

Besaide Plaza, 1 - B^a Aldekone-
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Gazte-ruta: 2012. urteko ebaluazioa

Informazio gehiago:
gib@txorierri.eu
688 62 99 65



Bestalde, gazteek aktiboki hartu dute parte Bizikidetzeta eta Lonjak arautzeko Proiektuan. Gazteria Zerbitzuak Esku-hartze Komunitarioko teknikariaren, Sondikako Udalaren eta herri honetako gazteen laguntzarekin eraman du proiektua aurrera, eta guztien artean udal ordenantza bat landu dugu. Ordenantza hori Mankomunitateko webgunean (www.e-txorierri.com) zein Sondikako Udalaren webgunean (www.sondikako.net) kontsulta daiteke. Egitasmoa Sondikan egin den arren, Txorierriko beste herrietan ere jarriko da martxan.

Aipatutakoaz gainera, gizarte-sareetan sortu dugu profila, Tuenti eta Facebook plataformetan hain zuzen ere. Gazteek haien interesgarria den informazioa topa dezakete han, eta Gazteria Zerbitzuek sustatzen diren ekintzak ere bai. Dagoeneko, 500 lagun baino gehiago gara Tuentin, eta ia 400, Facebook-en.

Mankomunitateak hainbat gai lantzen ditu Txorierriko gaztearen haritik, eta esandakoak adibide banaka batzuk baino ez dira. Baina, zer dakizu Gazte-informazio Bulegoari buruz? Badakizu zer dagoen eta non dagoen? Zein iradokizun egingo zenioke?

*Bereziki gazteen
emantzipazioa eta
autonomia
ahalbidetzen duten
sailetan egin da lan*

Ekainean argitaratu ziren *Txorierri* informazio-orrietan, Mankomunitateko Gazteria Zerbitzuak martxan jarritako Gazte-ruta proiektuaren berri eman genuen. Hark datozen urteetan gazteekin landuko diren helburuak batzen ditu. Era berean, proiektuan bertan, eta hura etengabe hobetzeko asmoz, egitasmoa osatzen duten alderdiak berrikusi eta ebaluatzeko aukera jaso da.

Proiektua martxan jarri zenetik hona egindako ekintzetariko batzuk azalduko ditugu hurrengo lerrotan. Gazteria Zerbitzuak 20 proiektutan hartu du parte eta 350 hedatze informatibo baino gehiago egin ditu. Mankomunitateko beste sail batzuk ere aritu dira aipatutako ekintzetan.

Hala, bereziki Enplegu, Heziketa, Etxebizitza eta Mugikortasun Sailetan egin da lan, zeinek gazteen emantzipazioa eta autonomia ahalbidetzen baitituzte. Informazioa eman da hauei buruz: deialdi publikoak, lan-poltsak, bekak, orientazio azokak eta ateak zabalatzeko egunak, matrikulazioak egiteko epeak, eta etxebizitza eskuratzeko moduak.

Gazteen artean balioak sustatzeko kanpainak ere jarri dira martxan. Horrela, bada, Berdintasuneko eta Esku-hartze Komunitarioko teknikariekin batera Txorierriko jailetan izan gara eta, besteak beste, gai bi landu ditugu gazteekin: genero-indarkeria eta osasuna.



Berbalagun egitasmoa



Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak urtean zehar aurrera eramaten dituen proiektuetako bat Berbalagun egitasmoa da. Hau da, euskararen erabilera bultzatzea euskaldun zahar eta euskaldun berriak elkartuz euren aisialdian euskaraz hitz egiteko aukera izan dezaten. Horiek horrela, azaroaren 26ko Euskara eta Kultura Batzordean 2011-2012 ikasturteko balorazioa egin zen eta 2012-2013 ikasturteko Berbalagun talde berriak aurkeztu ziren.

Tauletan ikus daitekeen moduan talde eta partaide kopuruari dagokienez iaz baino 15 partaide gehiago dauzkagu aurtengo. Bestalde, ezohiko berbalagunen kasuan (hau da ekintza puntualetara bakarrik datozenak) kopurua mantendu egin da. Ikasturte honetan martxan jarri dugun "Gurasolagun" egitasmoari dagokionez talde handi bat sortzea lortu da Sondikan eta Mankomunitatearen erronka beste udalerrietan ere antzeko guraso taldeak sortzea da. Gainera iaz ez zeuden frontenis talde bi sortu dira.

Datuei begiratuta beraz, urtetik urtera gorantz doan egitasmoa dela esan dezakegu.

Ekintza osagarriak

Ohiko taldeez gain Berbalagun egitasmoak hainbat ekintza osagarri eskaintzen ditu urte osoan zehar eta bertan ere edozein txorierritarrek eman dezake izena.

Horiek horrela, 2011-2012 ikasturte bukaeran berbalagun guztiei banatu zitzairen inkestaren berri eman zen gorago aipatutako Euskara eta Kultura Batzordean. Inkesta horretan ekintza arrakastatsuenak edo gustukuenak zeintzuk ziren markatu behar zuten berbalaguneko kideek:

1.- Museotik bisita gidatuak
2.- Ibilbide historiko edo interesgarriak
3.- Sukaldaritza ikastaroak
4.- Mendi irteerak

Hauek izan ziren, besteak beste, puntuazio handiena jaso zutenak.

Aurtengo ikasturteari begira ere, hauekin jarduera guztiekin jarraitu, berriak martxan jarri eta ekintza baten inguruan elkartuko diren berbalagun taldeak osatzea dira beste helburuetako batzuk.

2011-2012 IKASTURTEA		
HERRIA	BERBALAGUN TALDEA	PARTAIDE KOPURUA
Larrabetzu	1	9
Lezama	2	9
Zamudio	1	6
Derio	7	35
Sondika	4 Padel: 4	23 14
Loiu	2	8
Ezohikoak	0	15
Guztira	21 talde	104 partaide + 15 ezohikoak

2012-2013 IKASTURTEA		
HERRIA	BERBALAGUN TALDEA	PARTAIDE KOPURUA
Larrabetzu	2	14
Lezama	3	15
Derio	7	42
Sondika	3 Padel: 2 Frontenis: 2 Gurasolagun: 1	13 8 6 14
Loiu	2	7
Ezohikoak	0	16
Guztira	22 talde	119 partaide + 16 ezohikoak



Ur-tantak, euskerearen ibaian

Arrekikili Larrabetzuko euskera alkarteak gogoz ekin deuto berriro beharrari. Partaide barriak sartu dira alkartean, eta, ezer baino lehenago, herritarren eretxia jaso dabe, herrian euskerearen ezagutzea eta erabilerea aztertzeko. "Larrabetzuko euskerearen ibaian izan zaitez ur, lagun" lelotzat eban solasaldia egin dabe orain dala gitxi, eta han zein aurretik antolatutako tailerretan batu diran kezkak, iradokizunak eta eretxiak erabiliko ditue, alkarteak hemendik aurrera jarraituko deuten ildo nagusiak ezarteko.

Euskera alkartea orain dala 12 urte sortu zan, Kontseiluak martxan jarritako "Bai Euskarari" kanpainearen haritik. Arrekilik bizkarka eroatea esan gura dau eta Larrabetzun bakarrik –edo oso leku gitxitan– erabiltzen dan berbea da. Alkartea sortu zanean lehiaketeta zabaldu zan hari izena ipinteko, eta Arrekikili aukeratu eben. Militantzia handiko urteak izan ziran hasierakoak, eta denporearen poderioz ezinbesteko bihurtuko ziran proiektuak eta egitasmoak hasi ziran asmaten: bertoko produktuen azokea, Literaturaz berbetan egitasmoa eta haren inguruan sortutako Literatura Eskolea eta Literaturia, berbalagun taldeak eta euskera tailerrak, esate baterako. Ines Serrano eta Lurdes Etxezarreta alkarreko partaideek azaldu deuskuen moduan, alkarreak espezializaziora jo eban. Hau da, bere baitan lantaldeak osatu ziran eta bakotzak ardura zehatz bat hartu eban bere gain. "Larrabetzu herri txikia da eta gauza asko ohituraz, inertziaz... antola-

tzen dira. Baina gero konturatzen zara ez dagoala ekintza horreen guztien arteko alde zuzeneko koordinaziorik. Alkarrea berrartzeko proposamena egin euskuen euskalgintzan gabilzan lagun batzuei. Jente gaztea behar zala esan euskuen. AIKOR! aldizkariaren jaia orain dala urte bi egin zan Larrabetzun eta aukera hori aprobetxau genduan beharrea hasteko.

Alkarrean zazpi lagun dabilz gaur egun, nahiz eta ekintza baterako edo besterako beti eukiten daben laguntasuna. Herrian euskerearen erabilera bul-

tzatzea dabe helburu, baina beharrari astiro eta arduraz helduko eutsiela adostu eben hasiera-hasieratik. Halan, hurbil egozan esperientziak ezagutu zituen euskalgintzako beste alkarre eta eragile batzuen eskutik. Larrabetzuko errealitatea izugarri aldatu da azken urteotan. Lagun asko –euskaldun barriak gehienak– herrira joan dira bizitzera, eta horrek eragina euki dau herritarren beharrezanetan eta ohituretan. "Herri euskalduntzat eta euskaltzaletzat dogu geure burua, eta bagara. Baina, egia esateko, euskerearen

Alkarreak ezinbesteko bihurtu diran hainbat egitasmo bultzatu ditu: produktuen azokea eta Literaturaz berbetan, esaterako



Atsedena **BEZik** gabekoa

Robustaflex eta SWISS confort marketako produktu guztiak, BEZik gabe. Abenduaren 31ra arteko kanpaina.



Orion Biscoelastikoa 150x190

361€ ko AURREZKIA



Bio Latex Koltxoia 90 x 190 edo 200
+ Somier artikulatua

485€ ko AURREZKIA



SUITE DELUX
MARKA ESKLUSIBOAK, ATSEDENERAKO

Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Derio Derioko Seminarioa, 944 545 147	Eibar Errebal 19, 943 202 784
---	---	--



www.SUITDELUX.com

erabilera bajatu da kalean, eta jakin gura genduan zein zan herritarrek horren inguruan eben eretxia". Errealidade barrian sakontzeko asmoz, tailerrak antolatu zituen azaroan. "Baikortasunera eroaten gaituen elementu asko doguz Larrabetzun; izan be, euskerearen ezagutzea polita da eta motibazioa be dotorea da. Era berean, gauzak egiteko giza baliabideak badaukaguz, eta euskaldun zaharren kopurua oso altua da. Euskaldun barrien kopurua be polita da... Baina gaiari beste bultzada bat emon behar jakola uste genduan. Gainera, oso harreman hurbilak doguz herrian, eta horrek abantaila emoten deusku hausnarketea egiteko orduan". Tailerretara herriko hainbat jente konbidatu eben, han ahalik eta herritar gehienek ordezkartzea euki daien: gazteak, helduak, etorri barriak, gurasoak, euskaldun zaharrak... Parte-hartzaileek ibaiaren dinamika jarraitu eutsien eta jaio zirane-tik gaur egun arte euskereagaz euki daben esperientzia marraztu eben ibai baten. "Oso aberasgarria izan zan. Herrian betidanik bizi garanok edo berton urteak daroaguzanok bilakaerea nabaritu dogu, baina ez dogu jakin kanpotik etorri danak aldaketa hori zelan bizi izan dauan. Eta tailerre- esker ezagutu izan doguz euskaldun zaharren ikuspuntuaren eta euskaldun barrien ikuspuntuaren arteko ezberdintasunak, gurasoen eta gurasoak ez diranen arteko ezberdintasunak, herri euskaldun batetik etorri diranen eta herri

Beste herri eta euskalgintzan dabilzan eragileen esperientziak ezagutu ditue beharrean hasteko

Herriaren errealidadea aldatu da eta kalean euskera gitxiago entzuten da

Larrabetzun, gazteak dira euskerea gehien erabilten dabenak; eta helduak, gitxien erabilten dabenak

erdeldun batetik etorri diranen artekoak...".

Egitasmoak oztopoak non egozan jakitea eban helburu, eta ura ibaitik arin pasetako zer egin eitekean aztertu. Ibaia itsaso zabalerantz bultzatzeko, alkar-teak beste solasaldi bat antolatu eban eta, bes-

teak beste, Txatxilipurdi Arrasateko alkar-tearen eta Egizu Getxoko alkar-tearen ordezkariak eta Larrabetzuko kultur zinegotziak hartu eben parte han, esperien-tziak eta kezak alkartruketeko.

Ohiko tendentzia, hankaz gora

Bestalde, aitatu beharra dago Larrabetzuko Udalak Soziolinguistika Klusterrari kale neurketea egiteko enkargua emon eutsala. Ikerketa hatatik atera ziran ondorioak be baliagarriak izan dira alkar-tearen-tzat. "Oso datu interesgarriak emon dira ezagutzera. Adibidez, herrian euskerea gehien erabilten dabenak gazteak dira, eta hori ez da beste herri batzuetan gertatzen". Adin-tartei erreparauz gero, enkuestek dinoe euskerea gehien erabilten dabenak umeak dirala, eta hareen atzean gazteak, helduak eta zaharrak dagozala. Larrabetzun izandako emaitzek hankaz gora ipini dabe tendentzia, esan dogun moduan, euskerea gehien erabilten dabenak gazteak diralako. Hareen atzean umeak dagoz; eta horreen atzean, adinekoak. Euskerea gitxien erabilten dabenak helduak dira. "Enkuestaren emaitzek konfirmatu dabe guk bagenduan sentsazioa: euskerearen erabilera batez be 25 urtetik 45 urtera bitarteko lagun-en artean bajatu egin dala. Baina guk herritarrengandik eurengandik entzun gura genduan. Eta tailerretan kezka hori azaldu zan, lagun-taldean ez zala euskeraz egiten, seme-ala-bakaz ez zala euskeraz egiten...".

Batutako informazio eta datu guztia-kaz hausnarketa sakonagoa egiteko





asmao dauka alkarteak, eta datozen hile-beteotarako Arrekilik jarraituko deuten lerro nagusiak finkatu. "Gazteak ondo egiten dabilz eta bermatu behar da helduak diranean be euskeraz egiten jarraitu daie-la. Baina euskerearen erabilera batez be helduen artean bultzatu behar da. Gure indarraren zati handi bat bereziki adin-tarte horretara bideratuko dogu".

Kultur bilgunea sortu da Larrabetzun, eta bertan herriko alkarte guztiak dagoz ordeztuta, Arrekikili be bai. Taldeen arteko alkarrekintzea ezinbestekoa da herria bizi-rik egoteko eta egitasmoak aurrera eroa-teko. Gauzak komunean egiten diranean, emaitzak askoz hobeak dira. "Guk ez dogu zelatari ibili gura, baina bai eremu ezbar-dinetan murgiltzen dan euskaldun jentea-rrangan ilusinoa sortu, euren eremuan euskerearen ezagutzea eta hurbilketea atsegina izateko. Hau da, euskerea eremu

horreetan be ezarteko. Gure eginkizuna batez be kontzientzia sortzea izango da, eta gauzak zelan eroaten ari diran azter-tu".

Euskerearen ordenantzea

Arrekilikil parte-hartze bizia eukiko dau herriko bizitzan, euskerearen erabile-rea ahalik eta eremu gehienetan bultzatu-ko daua. Eskualdeko gainerako euskera alkarteakaz be arituko da eta parte hartu-ko dau Txorierrri mailan euskerearen ingu-ruan zabaltzen diran foroetan, halan egi-teko konbidapena emoten bajake. Eusta-tek 2006. urtean argitaratu zituan azken aldiz euskereari lotutako udal datuak. Datu horreen arabera, Larrabetzuk 1.730 biztanle zituen urte horretan eta hareeta-ko 1.226 euskaldunak ziran (% 73,5). Horrezaz gainera, 287 herritar ia euskal-dunak ziran (% 17,2). Sei urte igaro dira datuok plazaratu ziranetik hona eta, lehen aitatu dogunez, denpora-tarte horretan nahiko aldatu da Larrabetzuko errealida-dea. Halanda be, biztanleen kopurua kon-tuan hartzen badogu, Larrabetzuk jarrai-tzen dau euskaldun gehien dituan Txorie-rriko herria izaten.

Ondorioz, han daben egoera linguisti-koak ez dau zerikusirik beste herri batzue-tan dagoanagaz. Lurdesen eretxiz, Man-komunidadetik bultzatzen dan politika linguistikoa Larrabetzurako ez da egokia, eta ez dau bertan dagoan benetako erre-alidadea kontuan hartzen. "Joan dan urte-an Euskerearen Eguna ospatu zan Larra-betzun eta ekitaldi sorta zabala antolatu zan. Baina guk ez dogu kultura arloko eus-kerazko eskaintzarik behar, ha sobran dogulako bermatuta. Guk beste mota bateko egitasmoak behar doguz. Adibide bat jartearren, Euskerearen legeak dino euskerearen ezagutzea % 70 baino han-diagoa dan herrietan euskerearen orde-nantzea egon behar dala, baina guk ez dogu halakorik, kontu hori Mankomuni-dadetik kudeatzen dalako".

aldeko
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urte 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak
-zentro bakar batean
-Aurrikortu daen

-Especialitatea:
umeak

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

harategia - urdalategia
MIGUEL

ESPECIALIDADES:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZIA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Nire Autocasion
IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urte kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

Inmobiliaria
ETORKI

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobila: 607 32 35 53 48160 DERIO

MARMOLGINTZA
GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK ORRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 10-B behea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63

ekhi-hÖtz
BARAZKIETAFRUTADENDA

Aretxalde 68
48196 Lezama BIZKAIA
652 654 634



auto-escuela SONDIKA

Gidabaimena eskuratzeko izapideak
Irakaskuntza teorikoa, praktikoa eta ikus-entzunezkoa

Mateo Bidaurrezaga 2
Telefonoa 94 471 00 10
48150 SONDIKA Bizkaia

Plaza iturriondo, 2 (gola)
Telefonoa: 94 445 90 67
48007 Zurbaranbarri - Bilbo



OPTICA MODERNA

Erdiko kalea, 4
48160 Derio
Tel.: 94 454 37 99

Zorionak eta Urte Berri On



Liliak
Loradenda

www.liliak.net
facebook: liliak loradenda
amaiarementeria@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 - DERIO
94 454 12 23

LA GUN KOR

AMOLULARITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA
ZERRITZU BULEGOA

aretxalde, 68 - 48196 lezama
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084
lagunkor@hotmail.com

ALZARA

Sondikako euskara elkarte

ORIONAK
URTE BERRI ON!

Txorierri Et., 30
48150 SONDIKA

94-453 35 05
667 78 63 31



ORAIN GAUTXORI TABERNA
ERREMENTERI KALEAN
GIRORIK ONENA
LAGUN ARTEAN

**PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA**

Espezialitateak:

- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Iberikoak

Lehendakari Agirre plaza, 2
48170 Zamudio
94 656 11 14

Crazy Guitar

Fuentene Erretoa
Lekumbiz auzoa, 26
48170 Zamudio
94 452 23 79

Martinez Zalduendo Doktorea

Mediku estomatologoa
EHKO Odontologia irakaslea
Pamk EEUU Profesional

Clínica Sondika Dental

*1983tik hona zaintzen dugu zure bizi-irribarra

Protesiak implanten gainean
Ortodontziak
Periortodontziak

Goiri, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 34 40
e-mail: ramonzalduendo2009@hotmail.com
www.euskalnet.net/sondikadencli

Eguberri zeinekin, urteberri harekin

Hala dio esaera zaharrak, eta guk ere urtea zuekin amaitu eta hastea espero dugu. Aukera bat baino gehiago edukiko dugu lagunekin eta familiarekin datozen egunez gozatzeko.

Derio

Urtarrilaren 6ra arte

–Egitarau berezia, Gaztelekuan. Argibideak: gaztederio.tumblr.com.

Urtarrilaren 26ra arte

–“Gurdi solidarioa” Saharara agintzeko janaria biltzeko kanpaina, herriko supermerkatuetan.

Abenduak 24, astelehena

–11:00-14:00: Kirol jolasak eta jarduerak, kiroldegian.

–17:00: Olentzero, Errekalde parkean. Tximintx euskara elkartearen, Ipar-Alde abesbatzaren eta Jantzi Jarauntsi Troupe-ren eskutik.

Abenduak 26 – urtarrilak 4

–Egitarau berezia, Ludotekan. Argibideak: deriokoludoteka.bolgsport.com.

Abenduak 27, eguena

–19:30: Derioko erakusleihen VIII. Txapelketaren sariak banatzea. Danerik Paraje! elkartearen eskutik.

Abenduak 28, barikua

–18:00: Nagusientzako dantzaldia eta 1927. urteko kintoei omenaldia, Nagusien Etxean.

–19:00-22:00: Hiruko areto-futbola, kiroldegian. Pozgarri taldeak antolatua.

Abenduak 29, zapatua

–12:30: VIII. Argazki Lehiaketako sariak banatzea, Kultur Birikan. DAT taldeak antolatua. Lehiaketako argazkirik onenak urtarrilaren 26ra arte jarriko dira ikusgai.

–17:30: Dantzen agerraldia, Lainomendi dantza taldearen eskutik.



–Egun osoa: 3 x 3, Two ball eta Hirukoitzen Txapelketak, kiroldegian. Derio Saski taldeak antolatua.

Abenduak 30, domeka

–Egun osoa: 3 x 3, Two ball eta Hirukoitzen Txapelketak, kiroldegian. Derio Saski taldeak antolatua.

–11:00-14:00 eta 16:00-19:00: Haurrentzako eta Gazteentzako Gabon-parkea, kiroldegian.

Abenduak 31, astelehena

–11:00-14:00: Kirol jolasak eta jarduerak, kiroldegian.

Urtarrilak 5, zapatua

–09:00-14:00: Eskolako areto-futbola eta F7, kiroldegian. Arteaga taldeak antolatua.

–18:00: Erregeen desfilea, elizatik.

Urtarrilak 7tik 18ra

–10:00-12:00 eta 12:00-14:00: Oinarrizko

internet ikastaroa, KZ gunean. Izena ematea, Kultur Birikan.

Urtarrilak 9, eguaztena

–17:00-19:00: “Ezagutu eskupilota” ekin-tza, frontoian. Atxiki taldeak antolatua.

Urtarrilak 19, zapatua

–19:00: *Las entretenidas* antzezlan, Gurea Aretoan. Sutondoan elkartearen eskutik.

Urtarrilak 20, domeka

–19:00: *Las entretenidas* antzezlan, Gurea Aretoan. Sutondoan elkartearen eskutik.

Urtarrilak 26, zapatua

–19:00: *Las entretenidas* antzezlan, Gurea Aretoan. Sutondoan elkartearen eskutik.

Urtarrilak 30, eguaztena

–19:30: Tokiko agenda 21, Larrabarri baserrian. DerioKOMunikazioak antolatua.

 LIBURUDENDIA PAPERDENDIA
ZAMUDIO
Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

 **makla**
arkitektura
Teknologi Parkeko Ekartegia 804 E - 107 B
94 43 79 21 4860 Derio Bizkaia
653 06 366 estudio@maklaarkitektura.com
620 080 111 www.maklaarkitektura.com

 **TXORIERRI MARMOLDEGIA**
Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoini ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

Loiu

Abenduak 24, astelehena

–10:30-13:30: Ludoteka.
–11:00: Olentzero, Elotxelerrin.
–17:00: Olentzero, Zabaloetxen.

Abenduak 26, eguaztena

–10:30-13:30: Ludoteka.
–18:00: Oliver magoa, Ludotekan.

Abenduak 27, eguena

–19:00: Gabonetako postalen Lehiaketako sariak banatzea.

Abenduak 28, barikua

–10:15 (Zabaloetxe) eta 10:30 (Larrondo): Irteera, Gabon-parkera.
–19:00: Txitxi-burruntzia. Nagusien elkarrekin antolatua.

Abenduak 29, zapatua

–17:15 (Zabaloetxe) eta 17:30 (Elotxelerrin): Irteera, izotz pista.

Abenduak 30, domeka

–17:00-20:00: Zuresku (egurrezko jolas tradizionalak), frontoian.

Urtarrilak 2, martitzena

–10:30-13:30: Ludoteka.
–18:00-19:30: Umeentzako VII. azoka txikia, liburutegiko aterpean.

Urtarrilak 3, eguaztena

–11:30-13:30 eta 16:30-19:30: Umeentzako Gabon-parkea, frontoian.

Urtarrilak 4, barikua

–10:30-13:30: Ludoteka (3-12 urte bitarteko umeentzat).
–18:00: "Antzokiko istorioak" magia, ipuin kontaketa, umorea... Elotxelerrin auzo etxean.

Sondika

Abenduak 24, astelehena

–17:00: Olentzero eta Belen biziduna, Udaletxean. Parte-hartzaileak: "Txuma Olagüe" abesbatza, Olagüe talde korala, Guraso Elkarrekin, Gorantzaileak dantza taldea eta Ipar-Elaia txistu taldea.

Abenduak 28, barikua

–18:00: Mago Marsel, Kultur etxean.

Abenduak 29, zapatua

–11:30-14:00 eta 16:00-20:00: Haurrentzako eta Gazteentzako Gabon-parkea, Goronda Beko kiroldegian.

–19:00: Hipo eta Tomax pailazoak.

Abenduak 30, domeka

–11:30-14:00 eta 16:00-20:00: Haurrentzako eta Gazteentzako Gabon-parkea, Goronda Beko kiroldegian.

Abenduak 31, astelehena

–11:45: "Bazen behin espazioa" umeentzako berbena, Goronda Beko kiroldegian.

Urtarrilak 1, martitzena

–Gabonetako postalen Lehiaketako lanak ikusgai, liburutegian. Urtarrilaren 31ra arte.

Urtarrilak 3, eguaztena

–Opera txiki ikuskizuna, Arriaga antzokian. Zortzi urtetik hamahiru urtera bitarteko umeentzako irteera, Ludotekak antolatua.

Urtarrilak 4, barikua

–Opera txiki ikuskizuna, Arriaga antzokian. Hiru urtetik zortzi urtera bitarteko umeentzako irteera, Ludotekak antolatua.

Urtarrilak 5, zapatua

–18:00: Erregeen desfilea. Aireportuko terminal zaharretik. Oparien banaketa, Goronda Beko kiroldegian.



Abenduak 24, astelehena

–17:00: Olentzero, plazan. Kalejira, dantza, musika, opariak, gozokiak... Udalaren, Zorritzeta euskara elkartaren eta Kuru-tze dantza taldearen eskutik.

Urtarrilak 3, eguena

–11:30-13:30 eta 16:30-20:30: Haurrentzako eta Gazteentzako Gabon-parkea, pilotalekuan. Puzgarriak, tailerrak, ohe elastikoak, bideojokoak...

Lezama

Urtarrilak 4, barikua

–11:30-13:30 eta 16:30-20:30: Haurrentzako eta Gazteentzako Gabon-parkea, pilotalekuan. Ping-pong, kulunkak, marrazkiak egiteko mahaia eta aulkiak, futboleko ateak...

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA

Sakeleko telefonoa: 945 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarre kalea, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia
✉ faxa: 94 452 25 67
patxikoop@patxi.coop

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06



BIZKAIKO NEKAZARIEN
KOOPERATIBA
ETA ELKARTEAK

25.
urteurrena



ACCBI



LEZAMA S.C.
ZAMUDIO S.C.
SODUPE S.C.



BIZTARTEA



ASEBI

AGAMUGA
ARAMOTZ
BAMEPE
BIZEL

Ipar Kutxa

laguntzailea

Garaioltza auzoa, 23
48196 LEZAMA (BIZKAIA)
Tel: 94 455 50 63
Faxa: 94 455 62 45
e-mail: lorra@lorra-cg.net
www.lorra-cg.net
www.lursail.net



BIFE



ASGAPIR



BLAE



BBE



BITXEL



BITEL



BIMOEL



Betizu



ACOL



A. G. ARTAIO
B. CUETO, 141
48900 TRUCODE - Bizkaia



Abenduak 24, astelehena

–10:00: Gabonetako plater-tiroko saioa, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.

–Olentzero Eguna

–10:00: Zamudioko Kamara Koralak Olentzero abestuko du herrian zehar.

–14:00: Bazkaria, eskola zaharreko ludotekan.

–15:30: Merkatu solidarioa, eskola zaharrean.

–16:30: Abestera irtengo da.

–17:30: Olentzero bila joango da.

–18:30: Olentzerori gutuna emango zaio.

Abenduak 26, eguaztena

–16:00-21:00: Haurrentzako eta Gazteen-
tzako Gabon-parkea, kiroldegian.

Abenduak 27, eguna

–16:00-21:00: Haurrentzako eta Gazteen-
tzako Gabon-parkea, kiroldegian.

Abenduak 28, barikua

–Inozente Eguna, Gazte estazioan.

–Udal ikastaroetan izena emateko azken eguna.

Zamudio

–16:00-21:00: Haurrentzako eta Gazteen-
tzako Gabon- parkea, kiroldegian.

–20:00: XIV. Olentzerori gutuna Lehiaketaren sariak banatzea, kiroldegian. Ostean, Eriz magoaren saioa, Lagatzu euskara elkartearen eskutik.

Abenduak 29, zapatua

–Euskal selekzioaren partida eta kopaua, Gazte estazioan.



–Irteera, Bilboko Arte Ederretako museora, Boteroren lana ikusteko.

–16:00-21:00: Haurrentzako eta Gazte-
entzako Gabon-parkea, kiroldegian.

Abenduak 30, domeka

–16:00: Irteera, Barakaldoko BECera. Gazte estazioak antolatua.

–16:00-21:00: Haurrentzako eta Gazte-
entzako Gabon-parkea, kiroldegian.

Abenduak 31, astelehena

–10:00: Gabonetako plater-tiroko saioa, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.

–Eretzara irteera, Arroeta taldeak antolatua.

–01:00: Urte amaierako kotiloia, Adintuen etxean.

–Autobusa, Mungiara joateko. Izena ematea: abenduaren 27a baino lehenago, Gazte estazioan.

Urtarrilak 3, eguna

–16:00: Irteera, Bilboko La Casillako izotz pistara. Gazte estaziotik antolatua.

Larrabetzu

**Urtarrilaren 5era arte**

–Gabonetako postalen Lehiaketako lanak ikusgai. Astelehenetik barikura, 16:00etatik 20:00etara, Anguleri kultur etxean.

Abenduak 23, domeka

–11:00: PR-BI 254 Larrabideak ibilbidearen inaugurazioa, plazan.

Abenduak 28, barikua

–16:30: Irakurketa kluba, umeentzat. Anguleri kultur etxean.

Abenduak 29, zapatua

–20:00: XXVII. Gabonetako kantaldia, Andra Mari elizan. Gaztelumendi abesbatzak eta Ipar-Alde Derioko abesbatzak antolatua.

Abenduak 31, astelehena

–17:30: "Urieri bueltia" II. Herri-lasterketa, Euskal Herriko selekzioaren alde. Hori Bai gaztetxeak eta Udalak antolatua.

Urtarrilak 4, barikua

–16:00: Umeentzako puzgarriak-eta, frontoian.

Urtarrilak 5, zapatua

–18:30: Nagusientzako txokolatadea eta dantzaldia, Gure Etxean.

Hori Bai (Larrabetzun)

Abenduak 23, domeka

–Olentzero bila.

Abenduak 24, astelehena

–Olentzero.

Abenduak 25, martitzena

–Bertso-saioa.

Abenduak 29, zapatua

–Urteera, Haurrentzako eta Gazte-
entzako Gabon- parkera.

Abenduak 31, astelehena

–Kotiloia.

Urtarrilak 5, zapatua

–Goizean, auzoz auzo ekintza. Arratsaldean, pelikula eta txokolatada.

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA

Ruben

Lehendakari Leizaola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

BAR RAFI

ESPEZIALTATEA: PINTXOAK

Rafael Garcia Tejero

Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

RPM

MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinao 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com



*Zorionak eta
urte berri on!*



"Galegoz irakurtzen galegoengana heltze

SECHU SENDE | idazlea

t/a: Bestorrene

Abenduan, *Made in Galiza* ipuin liburuaren aurkezpena egin da Derion. Sechu Sendek liburuaren idazlea eta Txerra Rodriguez liburuaren itzultzailea izan dira bertan. Liburua zergatik euskaratu duten azaldu digute eta ipuin bi entzun ditugu: bata, ahoz; eta bestea, bideo baten bitartez. Sechu ondo ulertzen zen galegoz aritu da. Baina ez da ohiko aurkezpena izan, galegoaren azalpenen eta kontakizunen artean magia azaldu delako. Hala, paperean idatzi duguna asmatu eta buruko fontanelaren ahalmena erakutsi digu. Eta eskuan pendulu bat duela, hipnosia erabili du galegoa zein euskara hobetzeko.

Sechu, nondik dator galegorako duzun zaletasuna?

Nik ez nuen gaztetan galegoz hitz egiten. Behin, 13-14 urte nituela eta garai hartan Jose Luis nintzela, galego irakasleak liburuaren ordezkari beste tramankulu batzuk ekarri zituen klasera. Biribilean eseri ginen eta erdian kandela bat ipini genuen. Castelaoren izpirituarekin egin genuen berba eta amaieran banan-banan galdetu zigun: "falas galego?". Beste guztiek baietz erantzuten zuten bitartean, "no falo galego, pero falare" pentsatu nuen nik. Eta azkenean, Portuges-galego filologia ikasi dut, kar, kar.

Zergatik hasi zinen idazten?

Nire ustez, "Nunca mais" mugimendua giltzarria izan zen Galizian. Sormen kolektibo izugarria zabaldu zen orduan eta bakoitza bere esparruan mugitu zen, gauzak egiten. Ni liburu hau idaztera bultzatu ninduen mugimenduak.

Baina *Made in Galiza* ez da zure lehenengo argitalpena.

Poesia kaleratu dut, baita nobelak ere. Eta lanen batek saria jaso du. Baina *Made in Galiza* ipuinei esker lortu dut orain arte lortuta ez nuena: galegoz ira-

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO Telefonoa: 944 543 709

Albaitaritza **HENAR ORTUONDO**
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkai)

DERIO

LARRIALDIK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatu: 1815

lurrindegia **MAMEN** mertzeria

Goiko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbollean jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Baxo
DERIO

Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu

656 786 744 94 455 80 20

LARRABETZUKO ESTANKOA

Tabakoa, prentsa, loteria, kiniela...

Andra Mari kalea, 1 LARRABETZU
T: 944 558 110

ez duten a lortu dut"

*"Magiak hizkuntza
gatazkari begiratzeko
beste bide batzuk
eskaintzen ditu"*



kurtzen ez duten galegoengana heltzea. Izan ere, Galizian jende gutxi irakurtzen du galegoz; ghetto baten antzekoa da eta hori gaitzitzen lortu dut. Era berean, beste gauza bat ere lortu dut liburuari esker: Kurdistanen egon naiz, Euskal Herrian...

Ez diguzu ohiko aurkezpena eskaini.

Aspalditik dut magia eta esoterismo-rako zaletasuna. Eta esan behar dut ardi-hezitzailea naizela "Circo de pulgas Carruselo" egitasmoan. Gainera, hizkuntzarekin lan egiten dugunontzat, eta batez ere gazteekin, helduleku onak dira umorea eta magia. Magiak hizkuntza gatazkari begiratzeko beste bide batzuk eskaintzen ditu eta horiei helduta errazago egiten zait jendearen aurreiritziak eta muga psikologikoak gaitzitzen.

Nola ikusten duzu Galizia eta galegoaren etorkizuna?

Hauteskundeetan PP-k lortu duen gehiengoa dela-eta, badakit kanpotik begiratura ez dagoela baikorrak izateko arrazoi handirik. Baina lehen aipatu dudanez, "Nunca mais" mugimenduaren ostean beste mugimendu zabal bat eratu zen, orain arte islatu ez dena, baina etorkizunean eragina izango duena. Baikorra naiz. Galiziako autonomiaren aldetik ezin dugu ezer espero, trabak jartzea besterik ez. Hala ere, mugimendua gero eta nabariagoa da kalean. Galegozaleak portugesez hurbildu dira, eta Portugalen, eta bereziki Brasilen, indarra aprobetxatu nahi da.

Hizkuntzarekin jolastu

Lagun batek *Made in Galiza* liburua irakurtzeko gomendatu zion Txerrari eta hark hizkuntz minoritarioak tratatzeko beste era bat zegoela aurkitu zuen bertan. "Ipuinetan beste ikuspegi bat erabiltzen da, euskaraz orain arte erabili ez dena". Geroago, liburua kurdurara itzulita zegoela jakin zuen. "Galiziara egindako bidaia batean Sechu ezagutu nuen. Ez nuen zalantzarik eduki: liburua euskaratu behar zen".



Sechu eta Txerrari

Itzultzaile ibilia den arren, Txerrak egin duen lehenengo itzulpen literarioa da hau. Hala ere, eta nahiz eta liburua euskaratzeko orduan zailtasunak eduki dituen, eroso sentitu dela aipatu du. "Hizkuntzarekin asko jolasten den egilea da Sechu eta zaila izan da jolas horietako asko gurera ekartzea. Baina oso gustura geratu naiz itzulpenarekin".

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Galg. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA

TALLER KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

Euskara eta perretxiko-egunak



berba lagun

INFORMAZIOA:
Telefona:
 635 75 35 95
E-mail:
 txorierrri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
 www.aikor.com/txokoa/berbalagun

Udazkena perretxikotan ibiltzeko garai egokiena da eta Berbalagunok aukera aprobetxatu dugu, hilabete berba-mikologikoa antolatzeko. Hala, Lagatzu Zamudioko euskara elkartearekin batera, euskaraz, onddoz, lanpernaz eta mendiko beste ahogozagarritz betetako lau ekintza egin ditugu azaroan.

Roberto Fernandez mikologoak oso hitzaldi interesgarria eskaini zigun Zamudiotarren. Hainbat lagun batu ginen eta arreta handiz jarraitu genien adituaren azalpenei. Perretxikoen ezaugarriak, arriskuak eta bestelako kontuak buruan genituela atera ginen solasalditik, horiek guztiak hurrengo astean egingo genuen irteerarako oso baliagarriak izango zirela pentsatzen genuen bitartean.

Eta Sarria herrira abiatu ginen, ilusio handiz eta saskiak prest genituela. Menditik tipi-tapa, han eta hemen begiratzen, mendiko altxorak topatzeko irrikan... Gutariko askok oraindik genituen buruan Robertoren irakaspenak, baina eskerrak txangoan Juanan Diez zamadudiotarra gidari eduki genuela! Juanan ere aditua da perretxikoetan eta berak esan zigun zer hartu eta zer ez, non begiratu... Bere laguntza ordainezinari esker, altxor ederra lortu genuen; hala esateko lizentzia onartzen badidazue, perretxikoen "saskiakadak" eta "saskikadak". Eta ale guztien artean, gehienok inoiz ikusitako alerik handiena topatu genuen. Argazkia atera genion, txangora etorri ezin izan zinetenek ere hura mirets zenezaketen. Saskiak ondo beteta itzuli ginen Txorierrira.



Ana Goitisoloren argazkiak nagusien lehiaketa irabazi zuen.

Sukaldean

Mendian primeran moldatzen garen arren, perretxikoak jatea perretxikotan ibiltzea baino gehiago gustatzen zaigu; noski, berbalagun azkarrak gara gu. Eta horregatik prestatu genuen bazkari ederra Sarrian batutako aleekin. Perretxikotan aditua izateaz gainera, sukaldari bikaina ere bada Juanan eta sukaldeko sekretu bat baino gehiago ezagutarazi zigun. Beno, bera eta bere emaztea. Izan ere, senar-emazteek perretxikoak presta-

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion

Elkarte Teknologikoa, 105.
 T 94 431 71 36
 E zam@cianoplan.es



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
 www.cianoplan.es



tzeko hainbat modu azaldu zizkiguten. Guk ez genekien hainbeste era zegoenik! Besteak beste, maziak baziren moduan prestatu genituen, patearekin... eta arroz-pastela ere egin genuen. Halakorik prestatzen genuen lehenengo aldia izateko, dena goxo-goxo atera zitzaigun.

Perretxikoak batu ez ezik argazkiak atera ere egin genuen azaroan. Eta horren haritik, Argazki Lehiaketa antolatua genuen, zeina publiko orokorrari zuzenduta baitzegoen. Lehiaketara 40 argazki aurkeztu ziren eta epaile IZAE Zamudioko Argazki Taldekoak ibili ziren. Lan gogor-ari egin behar izan zioten aurre, agindutako argazki guztiak politak baino politagoak zirelako. Ana Goitisolok irabazi zuen lehiaketa nagusien kategorian eta saritzat lagun birentzako afaria jaso zuen. Hamalau urtetik beheko gaztetxoei zuzendutako lehiaketa Olatz Pozo 10 urteko neskatoak irabazi zuen. Olatzi ere eman



Hamalau urtetik beheko gaztetxoei zuzendutako lehiaketa Olatz Pozo 10 urteko neskatoak irabazi zuen.

genion opari ederra. Lehiaketara agindutako argazkiak Zamudioko taberna batean jarri genituen ikusgai. Hilabete mikologiko ederra atera zaigu, bai horixe!



aek


ZORIONAK
ETA URTE EUSKALDUN ON!

TXORIERRIKO AEK
TXEPETXA EUSKALTEGIA

Gorbea 5, Derio | 94 454 39 67 | txepetxa@aek.org

Mundutik ibili, Deriotik irten barik

Berriro egin dugu “Derioztarrak bost kontinente-etan” hitzaldi-saila. Nondik ibili gara aurten? Zer ikusi eta zer ikasi dugu? Erraza ez den arren, hurrengo lerrootan laburbiltzen saiatuko gara. Aurrerapen moduan, aipa dezakegu oso zaila dela bost bidaia hain ezberdin topatzea.



Afrika

t: Bestorrene

Lehengo egunean, Txapas taberna gainezka zegoela, safari batean hartu genuen parte, Gotzone Imazen eskutik. Afrikako bost handiak (elefantea, bufaloa, errinozeroa, lehoia eta lehoinabarra) ikus-tera joan zen maasaien herrira, baina han beste gauza batzuk ere aurkitu zituen. Bidaia kamioitzar baten gainean egin dugula, paisaia ikusgarriak eta era guztietako animaliak izan ditugu begien aurrean, argazkirako prest egongo balira bezala. Izen mitikoa duten lekuetatik ibili gara: Nilo ibaiaren iturria den Victoria lakua, Maasai Mara eta Serengeti erreserbak, eta Ngorongoro parkea, Zanzibarreko hondartzetan amaitzeko.

Bigarren egunean Tripy tabernan izan gara eta, han bertan, Berlinetik paseatu gara Ziortza Sanzekin. Bestelako bidaia izan da guztiz. Eraikuntzak ez dira garrantzitsuena eta hiria ere ez da oso polita; garrantzitsuena kaleko giroa da. Eta hortik ibili gara, merkatu txikietan, jendeak kalean bazkaltzen zuen bitartean, musika jotzen zuten bitartean... eta ziurtasun

osoz esan dezakegu han ez dagoela lapurrik. Kreuzberg auzoko kaleen aniztasunean ibili gara, harik eta hango usainak ia-ia sentitu ditugun arte.

Aldekone tabernan batu gara hirugarren egunean. Kanadan, Jabi Mugarrarekin izotz eskalada hastear ginela, lanpara erre eta bertan behera gelditu da hitzaldia. Beste batean izango da.

Izotzetik leku beroago batera joan gara laugarren egunean: denon ahotan dabilen Iranera, hain zuzen ere. Txepetxa AEK euskaltegian 50 graduko tenperatura jasan dugu Imanol Goienagaren eta Asier Bidaurrezagaren azalpenei jarraitu diegula. Beroaz aparte, han badago zer ikusi eta zer ikasi. Ikusteko, Zaratrastak zapaldu zituen lekuak, Persepolis herri famatuko





Bukarest

Afrikan, Berlinen, Kanadan, Iranen eta Bukaresten egon gara bidaiarien eskutik

harriak, meskitak... Eta ikasteko, adibidez, zelan gidariz autobusa gelditu barik alda daitekeen... Baina Imanolek eta Asierrek gehien azpimarratu digutena izan da bertako jendea, persiarrak, oso atseginak eta guztiz fidagarriak direla. Bisitatzeko moduko herria da.

Hitzaldi-sailari Mendia tabernan eman diogu jarraipena. Bidaia honek ez du aurrekoekin zerikusirik eduki, pare bat egun iraun duelako. Bidaia ez dugu bakarka egin, ezta talde txikian ere. Bidaia milaka lagunekin batera egin dugu. Hasieran, alaitasuna eta itxaropena izan dira nagusi; amaieran, etsipena eta tristura. Nora joan gara Lander Aiarzaren eskutik? Ba, Bukarestera, noski, Europako Ligaren finalean Athletic animatzera. Etxera itzuli baino lehen, taxia hartu eta ibilaldia egin dugu hiritik.

Baina porrotak ez gaitu kikildu eta izotzari eta hotzari berriro egin diegu aurre, Jabi Mugarrarekin batera. Tenperatura zero azpiko berrogei gradutaraino iritsi da Kultur Birikan, eta guk pioletak hartu eta kranpoiak jantzi ditugu. Pozik ibili gara ur-jauzi izoztuetatik igotzen, Kanadako paisaia ikusgarrien artean. Hara beste egun eguzkitsu batean itzultzeko asmoa dugu, oso hotz handia dagoenez, izotza ez dela-ko urtzen.

Amaitu dira aurtengo bidaiak, datoren urtean beste bost edukiko ditugu zain. Ez galdu.

Iran



Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierrri.net
48160 - DEIRO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierrri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikaria

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknikaria
- Produktzioa Programatzeko Teknikaria
- Automatizazioa eta Informatikako Sistemetako Teknikaria
- Salmenten eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknikaria
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Teknikaria

Lehengairik garrantzitsuena

t: Xabier Díaz, BTEKeko zuzendaria

Krisia gora eta behera, ezinezkoa dugu egun hauetan ohera irribarretsu joatea. Egunkarian, irratan zein telebistan ematen dituzten albisteek ez digute uzten; eta askoz gehiago hunkitzen gaitu inguruko adiskide askoren egoerak, horiek gertuago ditugulako. Hala ere, baikorrak izateko arrazoiak baditugula uste nahi dut, egoera aldatzeko lehengaiak eta tresnak eskura ditugulako.

Lehengaiei dagokienez, aspaldian amaitu zitzaigun inguruko burdina, Bermeoren pareko gas-poltsa ere bai... Zorionez. Hala esaten diegu BTEK-era bisitan datozen gazteei: zorionez. Gure lehengairik garrantzitsuena –zorionez berriro ere– haiek direlako. Pozik gaude horregatik.

Baina lehengaia, inportantea den arren, ez da nahikoa. Lehengaiari bere balioa emateko, lehenengo eta behin jakin behar dugu zelako gizartea nahi dugun, eta aipatutako lehengaiaren bitartez gizarte horretara urratsez urrats hurbildu.

Ez naiz luzatuko gizarte perfektua definitzen, beste baterako utziko dugu. Labur esanda, bere burua errespetatzen duen gizartea behar dugula uste dut. Eta hala izan dadin, kultura ulertu eta egiten duen gizartea izan beharko da, baita ingurumen eta ekonomia mailan jasangarria den gizartea ere. Fiu! Gizarte horretara gurbiltzeko lehengaia izanik, zeintzuk dira tresnak?

Hezkuntza

Kultura zientifikoak izaera kritikoa sustatzen du, eta irudimena, jakin-mina, pertseberantzia, talde-lana... Beraz, zientzia dugu tresna horietako bat. Baina zientzia ez da osmosiaren bidez lortzen den zerbait. Gure lehengaia kulturaz bus-



*Gaur egungo
egoera aldatzeko
lehengaiak eta
tresnak ditugu eskura*

ti behar dugu, gazteak kulturaren murgildu behar ditugu, eta bereziki kultura zientifikoan. Gizarteak horretarako duen tresna lagungarria hezkuntza da.

Beste alde batetik, teknologia gaur egungo digu gizarte, ingurumen eta ekonomia mailan jasangarritasuna lortzen. Baina teknologia erabiltzeaz gaine-

ra, hura ulertu eta sortu beharko dugu, eta berarekiko dugun erantzukizunaz jabetu. Teknologia ona edo txarra ez da goelako; balioa gizarteak egiten duen erabilerak ematen dio. Kasu honetan ere, hezkuntza da tresnarik onena.

Zientziaren Astea bezalako ekintzetan, edo BTEK egitasmoan bertan, aipatutako tresnak sustatzen ditugu, urratsak gizarte hobe baterantz eman nahi ditugulako, eta lana gizarte osora zabaltzeko. Lehengaia badugunez –ona, gainera–, goazen denok tresnok elkarrekin baloratu, partekatu eta erabiltzera. Goazen, eskolari laguntza emateaz gainera, hezkuntzaren ardura gizartearen hartzera.

AM
FORMACIÓN Y TRADUCCIÓN

www.am-formacion.com
info@am-formacion.com

Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Errementeri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

- INGURU ESKOLA
- MASA GUTUR
- ASTURKETA OFIZIALA
- GUTURKO PRESTAKUNTZA
- MOTO GUTURKOA
- PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
- ESKOLAZ KANPOKO KLASAK
- ITZULPEN ZERBITZUA

48196 LEZAMA Buzkara C/Errementeri 16

S.A.T. LEGU
SERVICIOS ASISTENTES A TERCEROS

Fu: 94 455 64 17 T: 94 455 61 98

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIVA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ENPRESETAK
ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONO/TAX: 94 455 64 87

Belemeko astoa eta idia

Aita Santuak ganadua kendu



t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

Aita tratantea izanak emoten deust eskubide apur bat abere kontu honetan abiatzeko. Benedikto XVI.ak –geuk be badaukagu Berasaluze VIII.a, ez santua baina– idatzi dau, hurrean, bere azken liburuan, Jesus umearen jaiotzan ez zala sehaska inguruan izan ez astorik, ezta idirik be. Noeren kutxan abere guztientzat zan tokia; orain kutxak banku dira. Euskaldunetarik batzuk albistea irakurri orduko aitatu dabe, jakina zala kontu hori: ez zala han astorik, ez idirik, ez Belenik, ezta Jesusik be. Et, et, et, horrenbeste be ez gero!

Belen Zisjordanian dago, Jerusalemtik bederatzi kilometrora. Jesus orduko

judua existidu zala badakigu Josefo historialariari esker. Horregaitik, nasai asko baiezatu geinke, Mendebaldean bizi dan pertsona ez dala kulturadun –sinesmen eta fede kontuetan sartu barik– Jesus Nazaretekoa nor zan ez badaki ze, eragin ikaragarria izan dau gure kultura. Jose Antonio Pagola teologo ospetsuak dino *Jesus, hurbilpen historikoa* liburuan, Jesus Nazareten jaio zala eta jaiotza Belenen kokatzea baieztapen teologikoa dala.

Kontua da, Vatikanon bizi dan Aita Santuak ganadua kendu dauela Gabone-

tako Belenetatik. Orain komediak, asto-idiak kendurik Jesus umea epeletan eukiteko, krisi sasoi honetan gasa nahiz elektrizitatea hain karu egonik. Danean dala, batzuri itzelezko penea emoten deusku hain etxeko doguzan asto-idiak liburuetatik, ikonografiatik eta denda-leihoetatik baztertzeak. Ai astoa, arre eta so erabili zaituguna! Ai ene idia, aida eta o-pean Olentzeroren gurdia garraiatu dozuna! Zer Gabon-kanta abestuko dogu zuen arrantza eta murrusa sinfoniko barik!

Club Hípico Aretxalde

Pony club • Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak • Apopilo zerbitzua
Salto • Txangoak • Animalien heziketa

Telefona:
IBON - 659 90 75 88

Aretxalde auzoa, 30 • 48196 LEZAMA

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano

- Menu berriak asteburuetan
- Etxeko orratzoko platerak
- Bardak asteburuetan
- Eguzko menua eta karta
- Jasartzeak eta ebentzuek
- Jantoki zahar

R.º Gortolaza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

Bai Euskarari
urrats biziak

zuzendaritza: **zuzendaritza**

zuzendaritza: **zuzendaritza**

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gortolaza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

LEJARRENE JATETXEA
Gortolaza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Etxeko sukaldaritza: Gabonetako menua**Olagarro eta ziza-entsalada epela***Errezetak: Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (lau lagunentzat):**

- 250 g olagarro egosia
- 100 g ziza
- Askotariko letxuga-boltsea
- Kipula bat
- 3 berakatz-atal
- Oliba orioa
- Modena ozpina
- Piperrauts gozoa
- Maldon gatza

Prestatzeko area:

Kipulea eta berakatzak xerratan ebagi eta oriotan erregosiko doguz. Zizak gehituko doguz, eta ondoren, olagarroa (xerratan ebagita). Gatz apur bat botako dogu. Ozpina-orioa egingo dogu; horretarako osagai honek erabiliko doguz: oliba orioa, Modena ozpina eta gatz apur bat. Azpil baten letxugak ipiniko doguz. Olagarro epela hareen gainean zabalduko dogu. Piperrautsa gainetik botako dogu eta, azkenik, ozpin-orioa.

Txakolin-erara**Osagaiak:**

- 4 mihi-arrain
- 16 txirla
- 300 ml txakolin
- 300 ml esnegain
- 2 gorringo
- Gurina

Prestateko area:

Arrainari azala kendu eta xerrak aterako doguz. Gatza bota eta xerrak zartagin baten gurinagaz prijiduko doguz alde bietatik gorritu arte. Txirlak eta txakolina gehitu, eta minutu pare baten eukiko dogu irakiten. Txirlak eta arraina atera, eta azpil baten ipiniko doguz. Esnegaina zartaginera bota eta irakiten eukiko dogu loditu arte. Gorringoak ondo irabiau eta esnegainari botako deusaguz. Nahasketea irabiauko dogu, saltsea loditu arte. Saltsea gainetik botako deusagu arrainari eta laba beroan sartuko dogu, apur bat gainerretzeko. Platera perejil apur batez apaindu daiteke.



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tifnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra



Arbolantza kalea, 8 - 1. azk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Mobila: 665 70 33 12

 **kirolak**

dribbling sport

KIROL EKIPAMENDUAK
FUTBOLA - SASKIBALOA
ATLETISMOA - GIMNASIA
PSIKOMOTRIZTATEA - SAREAK
GARAIAKURRAK - DOMINAK
KIROL OROKORRA

AIZKORRI KALEA, 1
TELEFONOA 94 454 10 01
48160 - DERIO (Bizkaia)

Mihi-arraina

Menier-erara

Osagaiak:

- 4 mihi-arrain
- Uruna
- 100 g gurin
- 16 patata egosi (txikituta)
- 2 limoi
- Orioa
- Gatza
- Perejil txikitua

Prestateko erea:

Arrainei azala eta burua kenduko deutseguz. Gatza bota eta urineztatuko doguz. Arrainak oliba oriotan prijiduko doguz alde bietatik gorritu arte (orioa erre barik). Arrainak azpil baten ipiniko doguz. Orioari gurina gehituko deusagu. Urtzen danean, limoi bien zukua eta perejila botako doguz. Orioa bero-bero botako dogu patata eta arrainaren gainean. Perejil apur bat gehiago erabili daiteke platera apaintzeko.



Intxaur-saltsea

Osagaiak:

- 2 l esne
- 250 g intxaur (zurituak)
- 250 g azukre
- 3 kanela-txotxa

Prestateko erea:

Intxaurrak eihoko doguz. Egosten litro bat esne eta kanelea ipiniko doguz: su bizian, hasieran (bost minutu), eta su eztian gero. Intxaurrak gehituko doguz. Irakiten hasten danean, azukerea botako dogu. Beharrezkoa danean, apurka-apurka joango gara beste litro bat esnea (bero) botaten, saltsea loditu arte. Hotzitu dogu. Kanela-hautsa botako deusagu.

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Alc-apaindegia
M^a Antonia Llodio TXPI

Txontxiko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Zapatak
Arropa
Osagarriak
Nazioarteko markak

ganiX

Txontxiko etorbidea, 9-10, lokala
(Arloa eraikina)
48160 DEUSTO
94 454 20 13
www.ganix.com

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zureko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209
www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

TURREGOTTI
JATETXEA

Laurabela etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregotti.com

elekma

URRATZEN BAT DUTEN COETREGINA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETREGINA ELEKTRIKO TXOAK

Lehenengo markak • Prestorik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txontxiko etorbidea, 25-3. FN - 48180 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es



solarium arin horizontala
dubxen zerbitzua
etengabeko ordutegia
hitzordua aurretik eskatuta

tel.: 94 454 35 80

Goiko kalea, 2 - 48160 Derio



**LARRABETZU
TURBERT**

**EUSKAL HERRIT
TURBERT**

ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64

Vulcanizados DERIO

Herriko plaza, 5 behea • 48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 94 454 00 21



MICHELIN
zerbitzu ofiziala

Urte barri on!



kukubiltxo

kukubiltxo.com
E.posta: kukubiltxo@kukubiltxo.com

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia

IRUSTA TABERNA

EGUNEROKO MENUAK
GXUEZ / MUSIKA ETA PARRANDA

Gabonetan, etxean gura doguz

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77



Moro's Pub



Aliprox

Ondo pasa jaietan!

**INES
JANARI-DENDA**

Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33



ETORKI TABERNA

Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)

**Urte
zoriontsu
eta
euskalduna
opa dizue**



arrekkikili

Larrabetzuko euskara elkarteak

euskal herriko d-generazioa

aritz eta nagel
aikor! 2012ko abenduaren 13an



Gomendioak


LITERATURA: NAGUSIAK

- Atzerri, Mikel Antza.
- Arabako euskara, Koldo Zuazo.
- Martutene, Ramon Saizarbitoria.
- Lauviaren giltza, Ivan Landa.
- Arrazoia ez dago edukitzerik, Iñaki Segurola.
- Plazer bat izan duk, Benito!, Pako Aristi eta Mikel Markez.



MUSIKA

- Morphina, Zea Mays.
- Erraiak, Xabi San Sebastian Band.
- Ibilean, Anje Duhalde.
- Faktore komunak, Enkore.
- Tximinotan, The Uski's.
- Sentitu, Pentsatu, Ekin!. Pirritx, Porrotx eta Marimotots.



LITERATURA: HAUR ETA GAZTEENTZAT

- Amatxo eta ni, Yasushi Muraki.
- Ai, ai, ai!, Yolanda arrieta.
- Nur eta dortoken uhartera, Toti Martínez de Lezea.
- Smara, Paula Carballeira.
- Gaur zortzi, Carmen Gisasola.
- Bihotzaren mekanika, Mathias Malzeiu.



Iradokizun gehiago: www.katalogoa.org

Peluteria
Estetika
94 455 81 44
Angulen 2. beheko Larrabetzu-Bizkaia

FRUTAK **BARAZKIAK**
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - beheko 48195 Larrabetzu 94 455 89 19

Oguiza
Hortz Klinika
Kirurgia eta implanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuritzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzoiaren tratamenduak
Odontologiako kontserbadoria
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak
Anguleri enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890

**CONSTRUCCIONES
LANDETANE, S.L.**

ANDER ETXEBARRIA
MIKEL ETXEBARRIA

Tfnoa. eta faxa: 94 455 65 82
607 54 77 67
607 23 99 42

Garaioitza auzoa, 142
48196 LEZAMA
Bizkaia



**TOLDOS
TXORIERRI**
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan



HARRI-BILBO
HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRERIA: DURANCON
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTZUEIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g • 48196 LEZAMA
94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Itxaropena, 2 • 48100 MUNGIA
94 674 33 40

Gabonetan be
euskeraz bizi

ZORIONAK

LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
AIKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

**Gestión
Zamudio**

Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

HORTZ KLINIKA
GANDIAGA
94 608 62 30 - 31
klinikagandiaga@euskalnet.net

10:00etatik 20:00etara arte
eta larunbatetan (aurretiko txanda)

- Odontologia orokorra
- Implantak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ezk.
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

Gabon zoriontsuak
lezamar eta
txorierritar guztioi

BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76



TXIMINTX
DERIOKO EUSKARA ALKARTEA

Jaietan be EUSKARA AHOAN!
Gozatu jaiak euskaraz!

Derio

**Gaztedi
berria tavern**

GABON GAUEKO JAIJA
Musika, dantza eta giro ederra
Karaokea betiko euskal kantuekin:
Martikorena, Oskorri, Ken Zazpi, Gatibu...

Ondo afaldu eta berotik ezarrialdi!

Aretxalde auzoa, 141
48196 Lezama
Tel.: 94 455 61 44





Biraka laguntzen
diogu munduari

ITP konpainia globala da, produktuaren bizitza-ziklo osoan zehar duen teknologia eta ingurumenarekiko begiruneagatik aerogintza eta industria motoreen merkatuan aitzindaria. ITPn kudeaketaren bikaintasunaren aldeko apostu sendoa egin dugu bai eta gure bezeroei begirako etengabeko lotura garatu ere, konpainiari eta interes-talde orori balioa emanez.



www.itp.es



talentuaren indarra



ASCENSORES ANBOTO

IGOGAILUAK INSTALATZEKO KONPONBIDE INTEGRALAK

Bulego berria ZAMUDION

Leizaola lehendakaria enparantza, 1
(Basurto autoeskola zegoen lekuan)



94 674 18 98



www.ascensoresanboto.com



- ▲ Gestio guztiak doan egiten ditugu
- ▲ Neurrira egindako zerbitzu integralak
- ▲ Deitu, konpromiso barik

AURREKONTUA ONARTUZ
GERO, URTARRILEAN DOAN
MARGOTUKO DIZUGU
ESKAILBURUA

*Zorionak eta
urte berri on!*